


→ urteko pertsonaia →

Joane Somarriba ■ TXIRRINDULARIA



Joane Somarriba, Frantziako Tourreko ertlojupekoan.

PATRICK GARDIN / AP

Inoizko ziklista
osoenetakoa

Giroa eta Tourra irabazi ditu
2000. urtean Joane Somarribak
■ Bigarren emakumea izan da
balentria hori lortzen

JOANE SOMARRIBA sopelarrak 2000. urtean lortutakoak ez du ia parekorik. Urte berean Italiako Giroa eta Frantziako Tourra irabazi duten txirrindulariak bi eskuetako atzamarrekin zenba daitezke, txirrindularitzaren historiako izar handienek baino ez baitute

eskura izan balentria hori —Indurain, Merckx, Coppi, Hinault, Anquetil, Roche eta Pantani gizonetan, eta Luperini eta Somarriba emakumeetan—. Joane Somarribak, 1999an bezalatsu, Italiako Giroa zuen helburu nagusia denboraldi hasieran. Maglia arrosa lortuta, Tourrera Edika Pucinskaite taldekideari laguntzerantz joan zen, baina erlojupekoek eta Pirinio eta Alpeetako aldatsek bakoitza bere lekuan jartzen dute, eta Tourrean Joane Somarribak indartsuena bera zela erakutsi zuen.

Orain 28 urte Sopelan jaio-tako txirrindulariak Italiako Giroa prestatzen jardun zuen urteko aurreneko hilabetee-tan. Fruituak eman zituen isilpeko lanak, ezbaierik gabe. Ekaina amaieran abiatu ziren txirrindulariak Italiako errepideetan barrena, eta uztailaren 9an iritsi zen Somarriba, maglia arrosa soinean zuela, Albano Termenera —bertan amaitu zen Giroa—. Etapa bakarra irabazi zuen, Montefiorino eta Fiorano arteko erlojupekoa, baina erabakigarria izan zen garaipen hori.

Bi astean pedalei eragiteak «jota» utzi zuen sopelarra, baina Frantziako Tourrean aritzeko ilusioz gainezka iritsi zen Euskal Herrira. Bi itzulien artean, herritarren omenaldi beroa jasotzeaz gain, lasterketa bakarrean parte hartu zuen Somarribak. Nazioarteko Sarian izan zen, eta hirugarren postuan amaitu zuen proba.

Urteko lasterketa nagusi-rako prest zen Somarriba, sasoi egokian. Aurreneko etapetan hautagai guztiak paretsu aritu ziren, baina Somarribak bi etapa jarraian irabazi zituen —Marseilla eta La Salvevat Sur Argout artekoa, abuztuaren 9an, eta hurrengo eguneko erlojupekoa—. Horrek hirugarren posturaino goratu zuen, eta hortik aurrerakoa Soma-

ribaren erakustaldia izan zen. Arerioen erasoei ederki erantzunez, Pucinskaite taldekideak sortutako liskarrak izan ziren oztopo nagusi.

Sydneyko Olinpiar Jokoe-tan ere aritu zen Joane Somarriba. Ez zuen domina-rik lortu, baina diploma bat ekarri zuen Euskal Herrira. Erlojupekoan bosgarren sailkatu zen, eta errepideko proban aurreko tropelean iritsi arren, hamalau-garren egin zuen.

■ Aurkakotasun handlei
aurre egindakoa

Joane Somarriba Arrola 1972ko abuztuaren 11n jaio zen, Sopelan. Azken bi urteetako emaitzak arrosa kolorekoak izan arren, ezin esan bere ibilbidea kolore horretakoa izan denik. Hainbat arazori egin behar izan die aurre Somarribak. Hernia, elbarri geratzeko arriskua, Euskal Herrian eta Espainian profesionala izateko aukera falta, Italiara joan beharra... Hiru urte egin ditu jada herrialde hartan, aurrenekoa Sanson taldean eta azkeneko biak Alfa Lumen. Emakumeen txirrindularitzak eskaintzen dituen baliabide urriak direla medio, Italiatik eskaintza jaso bezain pronto munduko txirrindulari eta talde onenak dauden tropelera abiatu zen bizkaitarra.

Etxekeengandik hain urrun bizitzear, ordea, ez du batere atsegin. Bere ingurukoek «oso etxeakoa» dela esan izan dute, anaia eta familiatik gertu egotea atsegin duela.

Datorren urtean Frantziako Tourra Euskal Herri-tik abiatuko da —Bilbotik—, eta Somarribari «ilusio berezia» egiten dio 1 zenbakia etxean irtenda eramateak. Denboraldiko helburu nagusia izango du Tourra. «Lan asko egin dute Tourra Bilbotik abia dadin, eta niretzat sari modukoa izan da», esan zion EGUNKARIARI.

Azken bi
urteetako emaitzak
arrosa kolorekoak
izan arren, arazo
asko izan ditu

Hurrengo
denboraldian Tourra
izango du helburu
nagusi, Bilbotik
abiatuko baita



ARALAR KIROLAK

Espezialistak zeregin hauetarako materialean:
goi-mendia, eskalada, Trekking-a, arroilen jaitsiera...

Marino Tabuyo, 6
Tel.: 943 32 15 94
DONOSTIA

Laskorain, 7
Tel.: 943 65 49 16
TOLOSA